

# Alferrikakoaren konkista



ARITZ GALARRAGA

Urteberri egunarekin instalatu da ulertzen zail den ohitura horietako bat: mendira bozkarioz joatea, urte berria muioren baten puntan hasita urte zaharreko zikin guztiak garbituko balira bezala. Ulertzen are zailagoa den ohitura bat, eguneko kirol kuota Garmisch-Partenkircheneko eski jauziekin ase daitekeela jakinda. Eta urteberri eguna bakarrik balitz sikiera; estutasun garai honek ez ote duen jai egun guztietara zabaldu mendira egiteko jaidura, behar aseezina. Aukera denik eta txikiena izanez gero, ale, goazen denok gailurretara. Guztiaren errua dauka Petrarca.

Francesco Petrarca, 1336ko apirilaren 4an, eta 32 urterekin, Mont Ventouxera egindako iguerak, eta ondoren idatzitako testuak, irekitzen baitute, ez bakarrik mendi-kroniken tradizioa, baita, eta batez ere, mendiarekiko sentimendu modernoaren bidea ere, gaintara besterik gabe igotzearena. Oraindik Petrarca ez da erabatekoa, testua bukatzen baitu erruduntasun sentimendu batekin, eta San Agustin Hiponakoaren hitz batzuk irakurtzen: *"et eunt homines admirari alta montium (...) et relinquunt se ipsos"*, alegia, gizajendea mendi gainak mirestera joaten dela, eta bere buruaz ahazten. Baina gaintzen du zalantzarik gabe Petrarca berak bidean aurkitzen duen artzainaren eszeptikotasuna –gailurrera igo, zertarako?–, eta bide ematen dio beranduago lortuko den alferrikakoaren konkistari.

Baina, ondo pentsatuta, gaur egungo gure hau ez ote den inutil, ezdeus, alferrikakoaren aldarrikapena baino, erabilgarritasun berri baten erakustaldia, ez ote garen mendiratzten gorputzarenak baino arimarenak diren gorputz-kargak arintzera. Ez ote dugun gurtzen, hartara, jainko garaikide bilakatu den gorputza, sanotasunaren, produktibotasunaren, bikaintasunaren gisako santu-txoen izenean. Eta ez zait iruditzen hain inutil, ezdeusa oro har alferrikakoaren konkista, hain erraz galtzen utz dezagun. ●



DENIS ITXASO, EAEko ESPAINIako ORDEZKARIARI ELKARRIZKETA 2021-1-5ko BERRIAN

ADUR

“ALBISTE TRAGIKO HAU TRANS KOLEKTIBOAREN AURKA EGUNERO EGITEN DEN INDARKERIAREN LEKUKO DA”

## TRANSGIRLS CANARIAS, EMAKUME TRANSEXUALEN ELKARTEA

Tenerifen, Iratxe Otero 29 urteko emakume transexualaren gorpua agertu zen abenduaren 26an, labankada zauriak zituela. Bilboko bere familiak hilketaren ondorengo gastuei erantzuteko modurik ez duelako babes ekonomikoa eskatu eta hedabideek biktima eta familia ez dituztela errespetuz tratatu salatu du TransGirlsek. **2021/01/04**



TransGirls